

**ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, PREBENTZIO,
SU-ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZERBITUKO
IKUSKATZAILEORDEA ESPEZIALITATEAN,
KARRERAKO FUNTZIONARIO LEGEZ SARTZEKO
HAUTAPROBAK**

Erantzun galdera hauek erreferentziarako eman zaizun bibliografiako edukiak kontuan hartuta.

**PRUEBAS SELECTIVAS PARA EL INGRESO EN EL
FUNCIONARIADO DE CARRERA EN LA ESCALA DE
ADMINISTRACIÓN ESPECIAL, ESPECIALIDAD:
SUBINSPECTOR-SUBINSPECTORA DEL SERVICIO DE
PREVENCIÓN DE INCENDIOS Y SALVAMENTO**

Responda a las siguientes preguntas de acuerdo con el contenido de la bibliografía de referencia facilitada



1. BESTEAK BESTE ZER PRINTZIPIO BERMATZEN DITU KONSTITUZIOAK?

- a. Legezketasunarena, arauen arteko hierarkiarena eta botere publikoen nahierakiarena.
- b. Legezketasunarena, arauen arteko hierarkiarena, arauen publizitatearena.
- c. Legezketasunarena, arauen arteko hierarkiarena, segurtasun falta juridikoarena.
- d. Legezketasuna, xedapen zehatzaileen atzeraeraginarena –xedapenok gertaeren unean existitzen ez diren eskubideei begira onuragarri izan ez edo eskubideok murrizten dituztenean–.

2. AUTONOMIA ESTATUTUAK:

- a. Ez dira estatuko antolamendu juridikoaren parte.
- b. Autonomia-erkidego bakoitzaren oinarrizko erakunde-arauak dira.
- c. Ez dute behar Gorte Nagusien onespenerik.
- d. Legegintza-dekretu gisa izapidetzen dira.

3. ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, NOLAKOA DA UDALERRIEN NORTASUN JURIDIKOA?

- a. Eskuordetua.
- b. Sortzen dituen erakundeak aitortua.
- c. Osoa.
- d. Haien autonomiaren menpekoa.

4. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, NORK DU EUSKAL HERRITAR IZAERA POLITIKOA?

- a. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko edozein udalerritan jaiok.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko edozein udalerritan bizi izan direnek.
- c. Estatuko lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenek.
- d. Estatuko lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna izana dutenek.

5. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, NOLAKO ESKUMENA DA EUSKAL HERRIAREN AUTOGOBERNU-ERAKUNDEEN ANTOLAKETA, ARAUBIDEA ETA JARDUERA, ESTATUTUAREN BERAREN ARAUEN ESPARRUAN?

- a. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren bakarreko eskumena.
- b. Bere lurralde barruan Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztekoa.
- c. Estatuko legeria betearaztekoa.
- d. Foru-legeria betearaztekoa.

6. KIDE ANITZEKO ZEIN ORGANOK DITU EUSKAL HERRIKO BETEARAZTE- ETA ADMINISTRAZIO-EGITEKOAK?

- a. Eusko Legebiltzarrak.
- b. Lehendakariak.
- c. Eusko Jaurlaritzak.
- d. Lurralde historiko bakoitzeko foru-gobernuak.



7. EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK EGIN ONDOREN, ZER GERTATUKO DA?

- a. Eusko Jaurlaritzak jardunean jarraituko du Jaurlaritzaren berria jabetu arte, ez da bertan behera geldituko.
- b. Eusko Jaurlaritzak lehendakaria izendatuko du.
- c. Eusko Jaurlaritzaren bertan behera geldituko da, eta jardunean jarraituko du Jaurlaritzaren berria jabetu arte.
- d. Eusko Jaurlaritzaren bertan behera geldituko da, eta gobernu-batzorde bat eratuko da Jaurlaritzaren berria jabetu arte.

8. NOREN ESKUMENA DA LURRALDE HISTORIKOEN ZERGA-ARAUBIDEA?

- a. Eusko Jaurlaritzarena.
- b. Estatuaren Ogasun Publikoarena.
- c. Foru-aldundiena.
- d. Eusko Legebiltzarrarena.

9. AUTONOMIA ERKIDEGOKO INSTITUZIO ERKIDEEN ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 25EKO 27/1983 LEGEAREN ARABERA, BERE KONDAIRATIKAKO TRADIZIOAREN ARABERA, ZEIN DIRA KONDAIRA LURRALDEETAKO FORU ERAKUNDEAK?

- a. Kondaira lurralde bakoitzeko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilua eta Ahaldu Nagusia.
- b. Batzar Nagusiak, Foru-Diputazioak eta udalerriak.
- c. Bakoitzeko Batzar Nagusiak eta Foru-Diputazioak.
- d. Eusko Legebiltzarrak, Batzar Nagusiak eta Foru-Diputazioak.

10. AUTONOMIA ERKIDEGOKO INSTITUZIO ERKIDEEN ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 25EKO 27/1983 LEGEAREN ARABERA. ZEIN DA EGIATZKO BAIETZAPENA?

- a. Kondaira-Lurraldeen dirubidetza-jarduna Eusko Legebiltzarraren gainbegiradapean egingo da.
- b. Kondaira-Lurraldeen eta horietako herri-alorraren dirubidetza-jarduna Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiarenarekin egokituta egingo da.
- c. Kondaira-Lurraldeen eta horietako herri-alorraren dirubidetza-jarduna Eusko Jaurlaritzarenean integratuko da.
- d. Kondaira-Lurraldeen dirubidetza-jarduna Ogasun Ministerioaren gainbegiradapean egingo da.

11. AUTONOMIA ERKIDEGOKO INSTITUZIO ERKIDEEN ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 25EKO 27/1983 LEGEAREN ARABERA. ZEIN DA BAIETZAPEN FALTSUA?

- a. Autonomia-Elkarteak eta bertako Kondaira-Lurraldeek, bakoitzak bere herri-jarduneko diru eskuraketa eta gastu guztiak barne izan ditzaten bere diruegitamauk gertatuko eta onartuko dituzte urteoro.
- b. Euskal Herriko Guztizko diruegitamauk Jaurlaritzak egin eta Eusko Legebiltzarrak onartuko ditu.
- c. Kondaira-Lurralde bakoitzeko diruegitamauk bertako Foru-Diputazioak egin eta Batzar Nagusiek onartat emango dituzte.
- d. Kondaira-Lurralde bakoitzeko diruegitamauk bertako Foru-Diputazioak egin eta Eusko Legebiltzarrak onartat emango ditu.



12. AUTONOMIA ERKIDEGOKO INSTITUZIO ERKIDEEN ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 27/1983 LEGEAREN ARABERA. ZEIN DA EGIAZKO BAI EZTAPENA?

- a. Estatuko Gobernuak Foru-Diputazioek Autonomia-Elkartearen diruegitamu gastutarako hurrengo ekonomia-urtean egin beharreko ekarketak xedatuko du.
- b. Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Foru-Diputazioek Autonomia-Elkartearen diruegitamu gastutarako hurrengo ekonomia-urtean egin beharreko ekarketak xedatuko du.
- c. Foru-Diputazioek modu autonomoan xedatuko dute Autonomia-Elkartearen diruegitamu gastutarako hurrengo ekonomia-urtean egin beharreko ekarketaren zenbatekoa.
- d. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Foru-Diputazioek Autonomia-Elkartearen diruegitamu gastutarako hurrengo ekonomia-urtean egin beharreko ekarketak xedatuko du.

13. TOKI-ARAU BIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEIN DIRA ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO ERAKUNDEAK?

- a. Udalerriak.
- b. Metropolialdeak.
- c. Udalerrien mankomunitateak.
- d. Eskualdeak.

14. TOKI-ERAKUNDEEN AHALMENEAN BARRUAN, BEREN ESKUMEN-EREMUAN, ZER DAGOKIE BETI ERE UDALERRIEI?

- a. Legegintza-ahala, udalerraren eremuaz azpiko toki-erakundeei dagokienez.
- b. Erregelamendu-ahala eta autoantolaketarena.
- c. Lege-mailako arauak emateko ahala.
- d. Udalerriek ez dute gaitasun juridikorik.

15. ZEIN BAI EZTAPEN DA ZUZENA ALKATEARI, ALKATEORDEEI, OSOKO BILKURARI DAGOKIENEZ?

- a. Udalerrri guztietan daudela.
- b. 2.000 biztanletik gorako udalerrrietan daudela.
- c. Hiru urterako aukeratzen direla 5.000 biztanletik beherako udalerrrietan.
- d. Ez daudela udalerrri guztietan.

16. ONDOKOETATIK, ZEIN DA OSOKO BILKURAREN ESKUMEN?

- a. Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea.
- b. Onartutako aurrekontuaren arabera ekonomiaren kudeaketa garatzea.
- c. Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
- d. Hirigintza-kudeaketako tresnak eta urbanizazio-proiektuak onartzea.



17. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAN XEDATURIKOAREN ARABERA, ZEIN ARRAZOITU EGIN BEHAR DIRA, EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK LABUR ADIERAZIZ?

- a. Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzen ez dituzten egintzak.
- b. Administrazio-xedapen edo -egintzak alderdi batek eskaturik berrikusteko prozedurak, administrazio-errekurtsoak eta arbitraje-prozedurak ebatzen dituztenak eta onartzen ez direla deklaritzen dutenak.
- c. Aurreko jardunean erabilitako irizpidearekin edo organo aholku-emaileek emandako irizpenarekin bat ez datozen egintzak.
- d. Presazko izapidetzea aplikatzen ez duten egintzak.

18. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAN XEDATURIKOAREN ARABERA, ZEIN DA ZUZENA?

- a. Zehapen-prozedurak ofizioz hasiko dira eskumena duen organoak hala erabakita, izan bere ekimenez edo izan goragoko agindu baten indarrez, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.
- b. Zehapen-prozedurak ofizioz hasiko dira eskumena duen organoak hala erabakita, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea.
- c. Zehapen-prozedurak salaketa baten ondorioz hasiko dira.
- d. Zehapen-prozedurak botere judizialak hasiko ditu.

19. ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEARI DAGOZKION ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINTZAK PRESUNTZIOZ BALIOZKOTZAT HARTUKO DIRA:

- a. ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada.
- b. ematen diren egunaren osteko egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada.
- c. beti eta kasu guztietan, ematen diren egunetik.
- d. beti eta kasu guztietan, jakinarazten direnetik.

20. ZEIN DIRA URTEKO EGUN BALIOGABEAK ADMINISTRAZIOAN?

- a. Legez ezarritako jaiegunak.
- b. Igandeak eta jaiegun erlijiosoak.
- c. Larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuak bere lurralde-eremuan.
- d. Negoziazio kolektiboaren bidez ezarritakoak.

21. NORK JARDUN DEZAKE ORDEZKARI BIDEZ ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEAN?

- a. Adinez nagusi den edozein pertsonak.
- b. Jarduteko gaitasuna duen edozein interesdunek.
- c. Prozeduran interesdun den edonork.
- d. Administrazioak izendaturiko edozein pertsonak.



22. NOLA SUSTATUKO DA PROZEDURA?

- a. Interesdunak eskatuta.
- b. Ofizioz, izapide guztietan.
- c. Ofizioz, bizkortasun-irizpidearen pean badago.
- d. Berez, prozedura hasteko erabakiarekin.

23. NOLA ERREKURRITU DAITEZKE ADMINISTRAZIO-BIDEA AMAITZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-EGINTZAK?

- a. Gora jotzeko errekurtsio bidez.
- b. Ezin dira errekurritu.
- c. Aukerako berraztertze-errekurtsio bidez.
- d. Erreklamazio ekonomiko-administratibo bidez.

24. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREKIN BAT, ZEIN DA GEHIENEKO EPEA EGINTZA ESPRESU BATEN KONTRA GORA JOTZEKO ERREKURTSOA JARTZEKO?

- a. 15 egun.
- b. Hilabete.
- c. 3 hilabete.
- d. 2 hilabete.

25. ZER KONTRATU-MOTARI DAGOKIO HONAKO ENUNTZIATU HAU? «PRODUKTU EDO ONDASUN HIGIGARRIAK ESKURATZEA, FINANTZA-ERRENTAMENDUAN HARTZEA EDO EROSTeko AUKERAREKIN ZEIN GABE ERRENTAN HARTZEA DUENA OBJEKTUTZAT».

- a. Obra-kontratua.
- b. Zerbitzu-kontratua.
- c. Hornidura-kontratua.
- d. Zerbitzuak emateko kontratua.

26. ZEIN EZ DA SARTZEN KARRERAKO FUNTZIONARIOEN OINARRIZKO ORDAINSARIEN ARTEAN?

- a. Soldata.
- b. Hirurtekoak.
- c. Lanpostu-mailako osagarria.
- d. Ordainsari bereziak.

27. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 1989KO 6/1989 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DIRA FUNTZIONARIO PUBLIKOEN LANSARI OSAGARRIAK?

- a. Aplikazioaren osagarria.
- b. Berariazko osagarria.
- c. Mailaren osagarria.
- d. Etekinaren osagarria.



28. EUSKARAREN ERABILPENA ARAUKATZEKO 1982KO AZAROAREN 10/1982 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA ZUZENA?

- a. Hiru hizkuntza ofizial daude Euskal Herrian.
- b. Euskal Herriak gaztelania du berenezko hizkuntza, eta hizkuntza ofiziala da euskararekin batera.
- c. Euskal Herriak euskara du berenezko hizkuntza, eta hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera.
- d. Euskal herritarrek euskaraz bakarrik izan behar dituzte harremanak Arduralaritzarekin.

29. EUSKARAREN ERABILPENA ARAUKATZEKO 1982KO AZAROAREN 10/1982 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA ZUZENA?

- a. Euskal herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko betebeharra Arduralaritzarekiko harremanetan.
- b. Euskal herritar guztiak dute ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko betebeharra.
- c. Euskal herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- d. Euskal herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko betebeharra.

30. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO AURREKONTUEI BURUZKO 2006KO ABENDUAREN 29KO 5/2006 FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 2013KO ABENDUAREN 3KO 5/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEAREN ONDORIOETARAKO, ZER ERAKUNDEK OSATZEN DUTE FORU SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA?

- a. Foru enpresa-sozietate publikoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak.
- b. Bizkaiko Foru Aldundia, foru erakunde autonomoak eta foru fundazioak.
- c. Bizkaiko Foru Aldundia eta foru erakunde autonomoak.
- d. Bizkaiko Foru Aldundia, foru erakunde autonomoak, foru enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak.

31. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO AURREKONTUEI BURUZKO 2006KO ABENDUAREN 29KO 5/2006 FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 2013KO ABENDUAREN 3KO 5/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEAREN ONDORIOETARAKO, ONDOKOAK DIRA IZAERA PUBLIKOKO ESKUBIDEEN ITURRIAK:

- a. Zorpetze-eragiketak.
- b. Foru Aldundiaren titulartasuneko eskubide erreal edo pertsonalak, horien balorazio ekonomikoa egin daitekeenean, baldin eta erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez badaude.
- c. Legatu gisa egindako eskuraketak.
- d. Dohaintza gisa egindako eskuraketak.

32. AINTZAT HARTURIK BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUA, NORI DAGOKIO BATZAR NAGUSIEN AURREAN ARAUEMATE-EKIMENA? AUKERATU BAIEZTAPEN FALTSUA

- a. Batzar Nagusietako kideei eta Batzarkideen Taldeei, Batzar Nagusien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- b. Foru Aldundiari.
- c. Herritarrei, herri arauemate-ekimena erabiliz.
- d. Eusko Jaurlaritzari.



33. AINTZAT HARTURIK BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUA, BATZAR NAGUSIEK

- a. Legebiltzarreko kideetatik Lehendakaria eta Mahaia hautatuko dituzte, Mahaia hark, Lehendakariorde bik eta Idazkari bik osatuko dutelarik.
- b. beren kideetatik Lehendakaria eta Mahaia hautatuko dituzte, Mahaia hark, Lehendakariorde batek eta Idazkari batek osatuko dutelarik.
- c. Batzar iraunkor bi hautatuko dituzte, batzarraldien arabera.
- d. beren kideetatik Lehendakaria eta Mahaia hautatuko dituzte, Mahaia hark, Lehendakariorde bik eta Idazkari bik osatuko dutelarik.

34. KONTUAN HARTURIK 3/1987 FORU ARAUA, OTSAILAREN 13KOA, BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA. FORU ALDUNDIAK ETA BERE KIDEEK, BATZAR NAGUSIEN ERREGELAMENDUAK EZAR DITZAN ARAUEN KALTERIK GABE, EGINBEHAR BATZUK IZANGO DITUZTE. ZEIN DA BAIEZTAPEN FALTSUA?

- a. Batzar Nagusietara joatea, berauek beren Lehendakariaren bitartez beren aurrera joan daitezten, Plenora nahiz Batzordeetara, eska dezaten.
- b. Batzar Nagusiek azaldu diezazkieten erregu, galdera, jabeldura eta mozioei jaramon egitea, beren Erregelamenduak ezar dezaten.
- c. Eusko Legebiltzarrari ematea behar duen informazioa eta laguntza.
- d. Foru Aldundiaren kideak, Diputatu Nagusia eta Foru Diputatuak Batzar Nagusien batzarraldietara joan ahal izango dira eta beraietan hitz egiteko ahalmena dute. Batzar Nagusiek batzordeen aurrean beren Foru Sailen karguek eta pertsonalgoak informa dezaten ere eskatu ahal izango dute.

35. NOLA ONARTZEN DIRA FORU SAILEN EGITURA ORGANIKOAK ETA HAIEN ERREGELAMENDU ORGANIKOAK?

- a. Dagokion foru-diputatuaren foru-dekretu bidez.
- b. Dagokion foru-saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez.
- c. Ahaldu Nagusiaren foru-dekretu bidez.
- d. Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretu bidez.

36. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2005EKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAN EZARRITAKOAREKIN BAT, ZEIN DA LEGE HORREN APLIKAZIO-EREMUA? AUKERATU BAIEZTAPEN FALTSUA.

- a. Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpean edo hari lotuta dauden ente publikoak.
- b. Estatuko Administrazioaren ordezkaritza.
- c. Foru-administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpean edo hari lotuta dauden ente publikoak.
- d. Tokiko administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpean edo hari lotuta dauden ente publikoak.



37. ZER EZARTZEN DU PLANGINTZA, EZARPEN, JARRAIPEN ETA EBALUAZIOARI DAGOKIENEZ EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EKAINAREN 20KO 4/2018 FORU ARAUAK?

- a. Bizkaiko Foru Aldundian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa arduratzen da bere kasa berdintasunerako foru-plana prestatzeaz.
- b. Bizkaiko gizarte zibil antolatuko eragileek eta kolektiboek definitzen dute Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Foru Plana.
- c. Foru sail guztiek, dagokien jarduera eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-planean berdintasunerako urteko programazioa, neurrien definizioa, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa egin beharko dute urtero.
- d. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak definitzen du Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Foru Plana.

38. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EKAINAREN 20KO 4/2018 FORU ARAUAK EZARTZEN DU ZEIN ADMINISTRAZIO-XEDAPEN ETA -EGINTZETAN EGIN BEHARKO DEN GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA. AUKERATU BAIEZTAPEN FALTSUA:

- a. Foru-arauen proiektuen kasuan
- b. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan 2. zenbakiko foru-dekretu arauemaileak.
- c. Egitura organiko eta funtzionalari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuak.
- d. Zuzeneko dirulaguntzak emateko hitzarmen arauemaileak; Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20-2 artikuluan jasotzen dira zuzeneko dirulaguntzak.

39. AINTZAT HARTURIK BIZKAIKO GARDENTASUNARI BURUZKO OTSAILAREN 17KO 1/2016 FORU ARAUAN XEDATURIKOA, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA BALIATZEKO:

- a. Motibazioren bat izan behar da.
- b. Ez da behar motibaziorik.
- c. Egiatzatu behar da interesdun izaera.
- d. Egiatzatu behar da badela interes legitimo bat.

40. AINTZAT HARTURIK BIZKAIKO GARDENTASUNARI BURUZKO OTSAILAREN 17KO 1/2016 FORU ARAUAN XEDATURIKOA, GARDENTASUNAREN INGURUKO ERREKLAMAZIOEN BATZORDEA

- a. Kide anitzeko organo bat da Batzar Nagusien mendekoa.
- b. Ahaldun Nagusiaren Kabineteari atxikitako organoa da, aurrekontu eta baliabide materialen ondorio hutsetarako.
- c. Kide anitzeko organo independente bat da, autonomia funtzionala duena.
- d. Foru-sail bakoitzeko hiru ordezkari osaturiko organo bat da.



41. HERRITARREK LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAN DUTEN BORONDATEZKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO 2019KO OTSAILAREN 26KO 30/2019 DEKRETUAREN ARABERA, ZEIN DA BAIEZTAPEN ZUZENA AGIRI PERTSONALAK EDO EUSKO JAURLARITZAK TOKI-ERAKUNDEETAKO BOLUNTARIOENTZAT EMATEN DITUEN ZIURTAGIRIAK BERRITZEARI DAGOKIENEZ?

- a. 2 urterik behin egin behar da.
- b. 5 urterik behin egin behar da.
- c. Agiria galdu edo hondatuz gero, edo datuak aldatuz gero, berritu egin behar da.
- d. 3 urterik behin egin behar da.

42. HERRITARREK LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAN DUTEN BORONDATEZKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO 2019KO OTSAILAREN 26KO 30/2019 DEKRETUAREN ARABERA, CURRÍCULUMEKO KOMPETENTZIA BATZUK EGIAZTATU BEHARKO DIRA BALDIN ETA BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOEN TOKI-ERAKUNDE BATEKO ESKUBIDE OSOKO KIDE BOLUNTARIO BEZALA PARTE HARTU NAHI BADA BABES ZIBILEKO ETA LARRIALDIEI AURRE EGITEKO LAN PREBENTIBO ETA OPERATIBOETAN. ZEIN DIRA KOMPETENTZIOK?

- a. Larrialdietan komunikazioetarako elementu bereziak erabiltzea.
- b. Udalerriko arriskuen azterketa egitea, bereiziz zein diren oinarrizko arrisku natural eta teknologikoen motak eta horien jatorria, faktore eragileak eta sailkapena, bai eta prebentziorako eta esku hartzeko prozedura operatiboak ezartzea ere.
- c. Suteak itzaltzeko elementu bereziak erabiltzea (mahukak eta ponpa-autoak erabiltzea).
- d. Aurreko baieztapen guztiak faltsuak dira.

43. HERRITARREK LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAN DUTEN BORONDATEZKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO 2019KO OTSAILAREN 26KO 30/2019 DEKRETUAREN ARABERA, NORK PRESTATUKO DU NAHITAEZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA, BOLUNTARIO-IZAERAREN AKREDITAZIOA ESKURATZEKO BEHARREZKOAK DIREN CURRÍCULUMEKO KOMPETENTZIAK LORTZERA ETA ZIURTATZERA BIDERATUA?

- a. Babes Zibileko Eskola Nazionala.
- b. Su Eskola.
- c. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia.
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

44. ADIERAZI ZEIN DEN BAIEZTAPEN FALTSUA, LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 2017KO APIRILAREN 27KO 1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA:

- a. Suteen prebentzio eta itzalketako zerbitzuei dagokie babes zibileko planak eta taktika operatiboak ezartzeko planetan parte hartzea.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak onartuko ditu taktika operatiboak, Herrizaingo Sailak alde aurretik egindako txostena kontuan hartuta.
- c. Zerbitzu bakoitzaren erregelamendu propioak xedatu ahal izango du suhiltzaile-etxeetan suhiltzaile profesionalak eta boluntarioak, biak batera, egon daitezkeela.
- d. Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetan, falta arina da norberari dagokion lan-txandara behar bezala uniformatuta ez azaltzea, arrazoi justifikaturik gabe.



45. LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 2017KO APIRILAREN 27KO 1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, ZER FALTA MOTA DA «ZERBITZUKO MATERIALA EDO LANGILEEN EKIPAMENDUKO GAUZAK OSTEA»?

- a. Ez da hutsegitetzat jotzen.
- b. Arina.
- c. Oso astuna.
- d. Astuna.

46. LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 2017KO APIRILAREN 27KO 1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, SUTEEN PREBENTZIO ETA ITZALKETAKO ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUEI DAGOKIENEZ, NORI DAGOKIO «EKIPAMENDUEN ETA MATERIALEN NORMALIZAZIOA ETA HOMOLOGAZIOA LORTZEA»?

- a. Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei.
- b. Babes Zibileko Batzorde Nazionalari.
- c. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei.
- d. Suteen aurkako segurtasunaren arloan eskumena duten foru sailei.

47. LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 2017KO APIRILAREN 27KO 1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, EUSKO JAURLARITZAN SEGURTASUN PUBLIKOAREN ARLOKO ESKUMENA DUEN SAILARI DAGOKIO:

- a. Suteen aurkako defentsaren arloan erakunde komunitatik datorren legeria eta arau-garapena betearaztea.
- b. Hondamendiko larrialdi-egoera deklaratzeko proposamena egitea lehendakariari.
- c. Babes zibilaren arloan prestatzen diren xedapen orokorrak onartzea.
- d. Prebentzioaren eta autobabesaren arloko politikaren ildo nagusiak ezartzea.

48. EUSKADIKO BABES ZIBILAREN PLANAREN BARRUAN (LABI), ZER DA ALARMA?

- a. Istripu bat gerta daitekeela edo pertsona, ondasun edo funtzioetan eraginak eduki ditzakeela ohartarazten duen ekintza.
- b. Agintaritzak eskudunak dagokion larrialdi-plana abiarazteko ekintza.
- c. Istripu bat gertatuko dela edo berehala gerta daitekeela ohartarazten duen eta babesteko neurriak hartzera eramaten duen ekintza edo mekanismoa.
- d. Pertsonengan, ondasunetan, ingurugiroan eta azpiegiturretan goren mailako kalteak sortzen dituen istripua.

49. EUSKADIKO BABES ZIBILAREN PLANAREN ARABERA (LABI), ZER TRESNA JOTZEN DIRA BALIAGARRITZAT, LARRIALDIEI AURRE EGITEKO SISTEMA BATERATZEA DELA ETA, BABES ZIBILEKO PLANGINTZA EGITEKO?

- a. Lurralde-planak eta taktika bereziak.
- b. Autobabes planak eta ekintzako taktikak.
- c. Autobabes planak eta gida operatiboak.
- d. Plan bereziak eta esku-hartzeko gidak.



50. LABI-KO TERMINOEN GLOSARIOAREN ARABERA, ZER DA ISTRIPU BAT?

- a. Pertsonengan, ondasunetan eta ingurugiroan goren mailako kalteak sortzen dituen gertaera, ekintza-taldean jarduteko gaitasuna arriskuan jartzerainokoa.
- b. Pertsona, elementu edo funtzioen ohiko egoera aldarazten duen ustekabeko gertaera, ondorio kaltegarriak sortzen dituena.
- c. Pertsonengan, ondasunetan edo ingurugiroan era askotako kalteak sor ditzakeen gertakaria, gizonen ekintza, naturaren indarrak edo inguruabar tekno-soziologikoak direla-eta sortutakoa.
- d. Pertsonengan, ondasunetan edo ingurumenean era askotako kalteak sor ditzakeen gertaera, gizakien ekintzarekin, naturaren indarrekin edo inguruabar tekno-soziologikoekin zerikusia duena.

51. LABI-REN ARABERA, ONDOKOETATIK ZEIN EZ DA UDALETAKO BABES ZIBILEKO PLANEN OINARRIZKO HELBURU?

- a. Prebentzio-neurriak zehaztea antzemandako arriskuak saihesteko edo gutxitzeko.
- b. Arriskuei, prebentzio- eta hartu beharreko babes-neurriei buruzko argibideak ematea biztanleei eta kontzientziaraztea.
- c. Udal mailan jarduketa-plan sektorial bat behar duten arrisku zehatzak ezartzea.
- d. Udal eremuan autobabesa sustatzea eta bultzatzea.

52. LABI-REN ARABERA, PLANGINTZAREN ESKEMA OROKORRAREN BARRUAN, EZ DIRA SARTZEN BABES ZIBILEKO PLANEN BARRUAN:

- a. Lurralde Historikoetako planak.
- b. Merkantzi arriskutsuen garraiorako plan bereziak.
- c. Autobabesekeko planak.
- d. Basoko suteetarako plan bereziak.

53. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDIETAKO PLAN BEREZIAREN ARABERA, ERKIDEGO HONEN BARRUAN, UHOLDE ARRISKU POTENTZIAL ESANGURATSUKO 100 AREA (UAPEA) DEFINITU DIRA. NOLA DAUDE BANATUTA AREA HORIEK MUGAPE HIDROGRAFIKOETAN?

- a. 56 Kantauriko Mugape Hidrografikoan sartzen dira, eta 44, Ebroko Mugape Hidrografikoan.
- b. 72 Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoan sartzen dira; 7, Kantauri Mendebaldeko Mugape Hidrografikoan, eta 21, Ebroko Mugape Hidrografikoan.
- c. 76 Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoan sartzen dira, eta 24 Ebroko Mugape Hidrografikoan sartzen dira.
- d. 62 Kantauriko Mugape Hidrografikoan sartzen dira; 12, Dueroko Mugape Hidrografikoan, eta 26, Ebroko Mugape Hidrografikoan.

54. 100 URTEKO BIRGERTATZE-ALDIKO URALDIA IGAROKO LITZATEKEEN ZONA DA, HAU DA, UHOLDE-LAUTADA GUZTIAK KONTUAN HARTURIK URALDI HORREXEKIN SORTUKO LITZATEKEEN UR-LAMINAN 0,3 M BAINO GEHIAGOKO KOTA-IGOERARIK ERAGIN GABE IGAROKO LITZATEKEEN ZONA. ZEREN DEFINIZIOA DA HORI?

- a. Urpean gera daitekeen gunea.
- b. Huste biziko bidea.
- c. Lehentasunezko fluxu-gunea.
- d. Ohiko ur-goraldia.



55. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDIKO PLAN BEREZIAREN LARRIALDI-FASEAREN 2. EGOERARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA BAIEZTAPEN FALTSUA?

- a. Halako larrialdi-egoerek, haien izaera, larritasuna eta/edo arriskuaren hedadura dela eta, gainditu egiten dituzte udalek eta aldundiek erantzuna emateko dituzten ahalbideak.
- b. Halako egoeretan, Uholdeen Ziozko Larrialdiko Planak jarraipen eta ebaluazio eginkizunak egiten ditu, udal- eta foru-planen zuzendaritzei bermatzeko, hala badagokio, kasuan-kasuko laguntzak emango direla.
- c. Oso egoera larriak dira, eta eragin handia dute herritarrengan, haien ondasunetan edo ingurumenean.
- d. 2. egoeratzat joko dira honela definituriko uharketako larrialdiak: 3. segurtasun gertagunea eta uharkak apurtzeko arriskua.

56. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDIKO PLAN BEREZIAN ADIERAZTEN DENAREN ARABERA, ETA UHOLDE ARRISKU AURREAN LARRIALDIA PLANIFIKATZEKO OINARRIZKO GIDALERROARI JARRAIKI, ZER DIRA «URPEAN NOIZEAN BEHIN GERATZEN DEN GUNEAK»?

- a. 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko uraldietarako urpean gera daitezkeen guneak.
- b. 10 eta 50 urteko birgertatze-aldiko uraldietarako urpean gera daitezkeen guneak.
- c. 50 eta 100 urteko birgertatze-aldiko uraldietarako urpean gera daitezkeen guneak.
- d. Aurrekoetatik bat ere ez.

57. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDIKO PLAN BEREZIAREN TERMINOEN GLOSARIOAREN ARABERA, ZER DA EURI ERTAINA?

- a. Orduko 10 mm edo gutxiagoko intentsitatea duena.
- b. Orduko 2 mm baino gehiago eta 15 mm edo gutxiagoko intentsitatea duena.
- c. Orduko 15 mm baino gehiago eta 30 mm edo gutxiagoko intentsitatea duena.
- d. Orduko 10 mm baino gehiago eta 30 mm edo gutxiagoko intentsitatea duena.

58. ZERBITZU HAUETATIK ZEIN EZ DA MOBILIZATZEN TXORIB GORABEHERA BATEAN?

- a. Meteorologiako Euskal Zerbitzua
- b. Gurutze Gorria/DYA.
- c. Gasteizko Udaleko suhiltzaileak.
- d. Ertzaintzaren talde mugikorra.

59. TAKTIKA OPERATIBOEI DAGOKIENEZ, ZEIN DA BAIEZTAPEN FALTSUA?

- a. TPC4-TPF4: Edukitzailea hondatuta edo sutan dago eta eduki-ihesa dago, sugarrak eta guzti.
- b. U1: Itsaso eta kostako salbamendua Itsasertzean edo kostaldean dauden pertsonak eta/edo ondasunak salbatzea edo bertan dauden gorpuak berreskuratzea.
- c. M1: Mendiko/landaguneko eta/edo hirien kanpoaldeko erreskateak. Mendialdean, landan eta/edo hirien kanpoaldean dauden pertsonen denetariko erreskateak.
- d. SG2: Baso-sutea Basoan sortutako suteak.



60. TG1 BATEAN, EGINKIZUN HAUETAKO ZEIN EZ DAGOKIO ERTZAINZARI ETA/EDO UDALTZAINGOARI?

- a. Sarbideen kontrola.
- b. Sarbideen definizioa.
- c. Esku-hartzea egiten den eremuaren kontrola.
- d. Segurtasun-eremua definitzea.

